

izar optika
Salegi, 1 - ☎ 943 133 133
20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa)

urquia
◆ Prentsa-salmenta
◆ Eskelak eta publizitatea
◆ Bitxitegia-opariak
◆ Kirol-trofeoak
Kale Nagusia, 26
☎ 943 83 30 63 / 943 83 22 57
Faxa: 943 83 25 72 - 20800 ZARAUTZ

KUKULU HARATEGIA
Jesus Iruretagoiena **Zorionak EGUNKARIA !!**
Merkatu Plaza - Tel.: 943 13 16 25 - ZARAUTZ

ZELINA URDAITEGIA
Azoka plaza, 17-18 Tf.: 943130842 20800 ZARAUTZ

FLEX KOLTZOIA
LOPETEGI Altzariak
Altzariak neurrira
Zigordia, 47 - ZARAUTZ - Denda: 943 83 04 37 - Lantegia: 943 83 00 51

Informatika aholkularitza
Programa modularrak
Neurrira egindako programazioa
ASEI
Kale Nagusia, 23 - 1º
20800 Zarautz
Tel.: 943 13 38 86
Faxa: 943 13 46 16
Web: www.asei-pymes.com
E-mail: ase@nexo.es

Arkatza LIBURUDENDA
Prentsa
Koadernaketak
Kopiak
Fax Zerbitzuak
Araba kalea, 24 I 20800 ZARAUTZ
Tel.: 943 89 00 14 - Faxa: 943 89 00 14

URDANGARIN ITURGINTZA
ITURGINTZA OROKORRA, BEROKUNTZA ETA GASA
TRESNA SANITARIOAK
BAINUGELAKO ALTZARIAK ESTILO GUZTIETAN, ETA
MOTA GUZTIETAKO OSAGARRIAK
Herriko Barra, 21 - Tel.: 943 13 15 70 - 943 13 35 71 - ZARAUTZ

MONDRA
Kafe-etxea
Mitxelena kalea, 27 - ☎ 943 83 45 61
ZARAUTZ
Mondra
Opil Okindegia
Mitxelena kalea, 27 - ☎ 943 13 45 29
ZARAUTZ

Zarautz

Olerti Etxea, txiki-handia

Literaturari buruzko hainbat ekitaldi antolatu ditu urtean zehar

KULTURA ikertu eta hedatzeko sortu zen Olerti Etxea 1998an, eta ekoizpen literario mardula egin du. Hainbat argitalpen egin ditu bere ibilbide laburrean. Olerti Etxeak kanpoan duen isla dira Zubiababaldizkaria (literatura, poesia, antzerkia eta saiakera lanak biltzen dituena) eta Literatura izeneko kuadernoak. Horrez gain, urtarrean literatur kritika aldizkari bat argitaratzekoak dira.

Literatur ekoizpena, literaturaren historia eta literatur kritika lantzen ditu Olerti Etxeak; bai argitalpenetan, bai ikuskizunetan. Aurtan, esaterako, asteazken, ostiral eta larunbatero antolatu dituzte errezetaldiak, hitzaldiak, liburuen aurkezpenak, antzerkia, zinema... Guztiak gai horietan aritu eta aditu direnen eskutik. Bertan izan dira, besteak beste, Joserra Garzia, Koldo Izagirre, Juan Luis Zabala, Bernardo Atxaga, Patxi Santamaria eta Juan Mari Irigoien. Bestalde, Melies aretoan ikusgai izan ditugu Billy Wilder, zinema zuzendari estatubatuarren



PABLO S. QUIZA

Christian Bolstanskyri buruzko erakusketa.

lana; Luis Buñuel zinema zuzendari espainiarrarena; zinema eta gerra ostea European; Rossellini, Visconti, Fellini eta Antonioniren lana; zinema beltza eta abar.

Leopoldo Zugazak, Olerti Etxearen sortzaileak, harrera ona ikusi du herritarren. Batzuetan aretoa bete egiten da; beste batzuetan, ordea, lau katu biltzen dira. Asmatzen zaila dela esan digu. Zuzendari estatubatuarren

gazaren ustez, «publikoak eskubidea du hoberena eskatzeko, eta guk daukaguna eskaini behar diegu, are gehiago diru publikoa jasotzen dugunez gero. Ezin ditugu ezezagunagoak diren gaiak edo jakintzak baztertu».

Asteroko ekitaldiekin urte osoan erantzun dio herritarren jakin-minari, eta horretan jarraitzen du Olerti Etxeak.

Zarautz, New Orleans txikia

JAZZ doinuek girotu dute aurtan uztaila. Nazioarteko Lehenengo Jazz Mintegiak harrera ezin hobea izan du. Manu Agirrek eta Petry Palou musikariak proposatuta, Zarauzko Udalak Bartzelonako Taller de Musics musika eskolaren laguntzarekin aste beteko ikastaroak antolatu ditu. 16 milioiko aurrekontua, eta musikaririk onenak: Kenny Barron piano jole amerikarra, Perico Sambeat, Sheila Jordan kantaria, Iñaki Salvador... Eta Angel Ilarramendi zarauztarra.



Astebete literaturari

Zarauzko Valdimir Brigadak I. Literatur Astea antolatu du aurtan, eta arrakasta handia izan du. Koldo Izagirre, Harkaitz Cano, Urtzi Urrutikoetxea, Pako Aristi eta beste zenbaitek hartu du parte. Poteo Poetiko, Poeta Gazteen Eguna... Literatura kaleetan.